VILLABONAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE VILLABONA
20150 (Gipuzkoa)

# VILLABONAKO UDAL HILERRIAREN ARAUBIDE- ETA JARDUERA-ERREGELAMENDUA

## I. KAPITULUA
## XEDAPEN OROKORRAK.

**1.go artikulua**
Erregelamendu honen xedea udal hilerrian zerbitzuak nola eman behar diren arautzea da, eta Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean, Udal Korporazioen Zerbitzu eta Ondasunen Araudian, Sanitate Lege Örokorrean, Euskal Autonomi Elkartean gorputzak eta gorpuzkiak garraiatzeko osasunbide baldintzak ezartzen dituen urriaren 6ko 267/1992 Dekretuan eta uztailaren 20ko 2263/1974 Dekretuz onartutako Hileta Polizia Sanitarioaren Araudian, eta horiek ordezkatzen dituzten arauetan nahiz aplikagarri den gainontzeko arautegian xedatutakoa oinarritzat hartuz udalerriei ematen zaizkien ahalmenen indarrez ebazten da.

**2. artikulua**
Barne-jarduerako araudi hau Amasan dagoen Villabonako udal hilerrian izango da aplikagarri.

**3. artikulua**
3.1 Villabonako udal hilerria Amasan kokatua dago, eta honako elementuek osatzen dute : Alboan gela bat duen kapera; bakarkako horma-hilobi handiak; gorpuzkinetarako horma-hilobi txikiak; panteoiak eta hezurtegi edo hobi orokor bat.
3.2 Udalak beharrezkoa deritzonean edo eskudun organoaren erabakiz horrela xedatzen denean, edukiko ditu :
a) Gorpuzkin gaubeila bat.
b) Bakarkako kolunbarioak.
c) Gorpuzkinentzako errausketa-labe bat.

**4. artikulua**
Udalaren zerbitzu publikoko ondasuna izaki, Udal Korporazioari dagokio udalaren titularitateko hilerria administratzea, zaintzea eta zuzentzea, Erregelamendu honetan xedatzen denaren arabera, Aginte Judizialari edo eta Osasun arloko agintariei dagozkien ahalmenak alde batera utzi gabe, ekainaren 7ko 1372/1986ko Toki-Erakundeen Ondasunen Erregelamenduko 4. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

# REGLAMENTO DEL REGIMEN Y FUNCIONAMIENTO DEL CEMENTERIO MUNICIPAL DE VILLABONA

## CAPITULO I
## DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1**
El presente Reglamento tiene por objeto la regulación de la prestación de los servicios en el cementerio municipal y se dicta en virtud de la competencia atribuida a los municipios y con sometimiento a lo prevenido en materia de cementerios en la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, en los Reglamentos de Servicios y de Bienes de las Corporaciones Locales, en la Ley General de Sanidad, en el Decreto 267/1992, de 6 de octubre, por el que se establecen las condiciones sanitarias del transporte de cadáveres y restos en la Comunidad Autónoma del País Vasco, y en el Reglamento de Policía Sanitaria Mortuoria aprobado por Decreto 2263/1974, de 20 de julio, o normativa que las sustituya, así como la demás normativa de aplicación.

**Artículo 2**
Esta normativa de régimen interior será de aplicación en el cementerio municipal de Villabona sito en Amasa.

**Artículo 3**
3.1 El cementerio municipal de Villabona está ubicado en Amasa, y consta de: Capilla con una sala adyacente; nichos grandes individuales; nichos pequeños para restos; panteones y un osario general o fosa común.
3.2 Cuando el Ayuntamiento lo considere oportuno o así se determine por disposición del órgano competente dispondrá de:
a) Velatorio para cadáveres.
b) Columbarios individuales.
c) Horno crematorio para cadáveres.

**Artículo 4**
El cementerio de titularidad municipal, como bien de dominio público afecto al servicio público, queda sometido exclusivamente a la administración, cuidado y dirección de la Corporación Municipal en los términos que se indican en el presente Reglamento, sin perjuicio de las facultades que corresponden a la Autoridad Judicial y en su caso a las Autoridades Sanitarias, de conformidad con lo dispuesto en el

**5. artikulua**
Udal hilerria, toki-komunitateko kide guztien zerbitzura dagoena, Udalaren autoritatearen menpe dago, berari dagokiolarik :

a) Hilerriaren administrazioa, antolakuntza, zaintza, ustiaketa, ordenua eta polizia zaintzea eta mantenua nahiz txukuntasuna, baita hilerriko udal eraikinena, zerbitzu orokor eta instalazioena, bideena, estolderi sarearena, argiteriarena, zuhaizti eta lorategiena, eraikin eta hilerrian interes orokorreko gerta litekeen guztiarena ere.
b) Hilotz eta gorpuzkinak hilobiratzea, hilobitik ateratzea, hilerri barruan lekualdatzea, hilotz eta gorpuzkinak gordetzea eta murriztea eta hilerrietako osasun gaietan indarreko legediak eskatzen duen gainerako beste edozein jardun.
c) Hilobiratzeko eskubide mota oro eman, adierazi eta aldatzea, horien onuradunak nortzuk diren izendatzea eta horiei dagozkien agiriak izapidetu eta eskuratzea.
d) Hilobien emakidak eratu, izapidetu eta, hala dagokionean, bukatutzat ematea.
e) Dagokion Ordenantza Fiskalean legez ezarritako eskubideak eta tasak kobratzea.
f) Hilerriaren barne erregimena eta bertako hilotzak garraiatzea.
g) Orain arte hartu diren edo aurrerantzean hartuko diren osasun eta garbitasun neurriak betetzea.
h) Hilerriko langilegoa, bai funtzionarioak, bai lanhitzarmendunak, e.a. izendatzea eta aldatzea.
i) Herritarrek hilerrian edozein lan edo instalazio egin nahi dutenean, horretarako baimena ematea eta zuzendaritza zein ikuskatze lana egitea.
j) Hilerriaren jabe titularra eta herriko jarduerak araupetzen dituen erakunde publikoa izaki, berari dagokion beste edozein funtzio betetzea.

**6. artikulua**
Aipatutako zerbitzu orokorrak emateagatik, Udalak bakarkako nitxo handi, gorpuzkinentzako nitxo txiki, panteoi eta etorkizunean egon daitekeen gainontzekoagatik, eskubideak jaso ahal izango ditu, une bakoitzean onartua dagoen Ordenantza Fiskalaren arabera.

artículo 4 del Reglamento 1.372/86, del 7 de junio, sobre Bienes de las Corporaciones Locales.

**Artículo 5**
El cementerio municipal, al servicio de todos los miembros de la comunidad local, está sujeto a la autoridad del Ayuntamiento, a quien corresponde:

a) La administración, organización, conservación, explotación, cuidado del orden y policía, y mantenimiento y acondicionamiento del cementerio, así como de las construcciones funerarias municipales, de los servicios comunes e instalaciones, viales y caminos, red de alcantarillado, alumbrado, arbolado y jardinería, edificios y demás de interés general del cementerio.
b) La inhumación, exhumación, traslado dentro del cementerio, depósito y reducción de cadáveres y restos humanos, y cualesquiera otras actuaciones exigidas por la legislación vigente en materia sanitaria mortuoria.
c) La concesión, reconocimiento y modificación de derechos de enterramiento, la designación de sus beneficiarios y la tramitación y expedición de los títulos referentes a los mismos.
d) La constitución, tramitación y, en su caso, extinción de las concesiones de sepultura.
e) La percepción de los derechos y tasas que se establezcan legalmente en la correspondiente Ordenanza Fiscal.
f) El régimen interior del cementerio, incluida la conducción de cadáveres.
g) El cumplimiento de las medidas sanitarias e higiénicas dictadas o que se dicten en el futuro.
h) El nombramiento y separación del personal del cementerio, ya tenga carácter de funcionario, contratado laboral, etc.
i) La autorización a particulares para la realización en el cementerio de cualquier tipo de obras e instalaciones, así como su dirección e inspección.
j) Cualesquiera otras funciones que pudieran corresponderle, atendiendo a su carácter de titular propietario del cementerio y a su condición de entidad pública a quien compete la regulación de la actividad dentro del término municipal.

**Artículo 6**
En razón de la prestación de los servicios generales, el Ayuntamiento podrá percibir derechos y tasas sobre los nichos grandes individuales, nichos pequeños para restos, panteones y otros que en el futuro se puedan disponer, en la cuantía y forma reguladas en la Ordenanza Fiscal correspondiente que en cada momento resulten de aplicación.

**7. artikulua**
Hilerriko langileen ardura izango da hilerria oro har garbitu eta zaintzea, hilobiak, bertako apaingarriak eta instalazioak zaindu eta garbitzea, berriz, partikularren beraien kontura izango da.

Baldin eta partikularrek ez badituzte hilobiak garbi eta txukun zaintzen, eta udal zerbitzuek egoera eskasean daudela ikusten badute, lan hori egin dezala eskatuko diote hilobiaren titularrari.Titularrak ez badu ezarritako epean agindutakoa betetzen, Udalak berak egin ditzake lan horiek titularraren ordez eta haren kontura, Araudi honetan eskubideen iraungipenari buruz aurreikusten denaren kaltetan gabe.

**8. artikulua**
Hilerriko langileek honako betebeharrak izango dituzte :

a) Hilerria eta bere dependentziak garbitzea, eta barneko eremua apaintzea eta antolatzea. Landareak, zuhaiztiak eta belardiak zaintzea, dagokion Udal zerbitzuarekin elkarlanean.

b) Hilerrian dauden gauza guztiak zaintzea, bai zerbitzua emateko beharrezko elementuak, bai lanabesak edo erremintak.

c) Kapera, gorputegia eta gainerako dependentziak garbi edukitzea.

d) Hilerrian, apaingarriei dagokienez, osasun arloan zein beste edozein arlotan dauden irregulartasunak gaineko karguari azaltzea eta oro har hilerria garbi mantentzea.

e) Hilobiratzeko ematen zaizkion gorpu eta gorpuzkinak jasotzea eta eramatea, eta hala badagokie, gorputegian gordetzea.

f) Hilobiratzeko edo desehorzteko, nahiz hilobiak ixteko edo estaltzeko beharrezko lanak egitea.

g) Eremuko ordena egokia mantentzea.
h) Behar diren hilobiak prest edukitzea; arrazoi hori dela eta, ez da inoiz hilobiratzerik etengo.

i) Hilobiratzeak, desehorzteak eta lekualdatzeak egiteko beharrezkoak diren agirien kopiak gordetzea, baita lan horrekin zerikusia duten gainontzeko agiriak ere.

**Artículo 7**
El personal del cementerio cuidará de los trabajos de conservación y limpieza generales del cementerio, corriendo a cargo de los particulares la limpieza y conservación de las sepulturas de cualquier tipo, objetos e instalaciones.
En caso de que los particulares incumpliesen su deber de limpieza y conservación de las sepulturas, y cuando se aprecie el estado de deterioro, los servicios municipales requerirán al titular del derecho afectado su realización, y si éste no los realizase en el tiempo señalado, el Ayuntamiento podrá realizarlos subsidiariamente y a su cargo, sin perjuicio de los previsto en este Reglamento en los que a caducidad del derecho funerario se refiere.

**Artículo 8**
El personal del cementerio tendrá las siguientes funciones:

a) Atender la limpieza del cementerio y sus dependencias y la ornamentación y cuidado del interior. Cuidar las plantas, los árboles y el césped en colaboración con el correspondiente servicio municipal.
b) Custodiar cuantos objetos existan en el lugar, tanto los elementos necesarios para el mantenimiento del servicio como los enseres y herramientas.
c) Mantener en perfectas condiciones de limpieza la capilla, depósito mortuorio y el resto de las dependencias del cementerio.
d) Dar cuenta a su superior jerárquico de las anomalías que existieran tanto de tipo higiénico sanitario, de ornamentaciones como cualesquiera otras, dentro del recinto del cementerio y mantener el mismo con carácter general, en perfecto estado de limpieza.
e) Recibir y conducir los cadáveres y restos que se le entreguen para su inhumación, conservándolos en el depósito de cadáveres cuando así proceda.
f) Realizar las operaciones materiales necesarias para la inhumación o exhumación, y en su caso, las de cierre o sellado de las sepulturas.
g) Velar por el buen orden del recinto.
h) Tener dispuestas las sepulturas de cualquier tipo que se precisen, no dando lugar nunca a interrupciones en la marcha de las inhumaciones por esta causa.
i) Guardar las copias de la documentación necesaria para las inhumaciones, exhumaciones y traslados, así como cualquier otro documento relacionado con esta función.

j) Nitxo, panteoi eta kolunbarioak hustu eta garbitzetik jasotako arropa eta tresnak suntsitzea, behar den bezala baimendutako hilotzen edo gorpuzkinen desehorzketatan hilkutxan leudekeen objektuak beste pertsonaren batek jasotzea ez utziz; hilerriko ehorzketatan leudekeen hondakinen, jantzien, hilkutxen edo bestelako objektuen desagerpena ehorzlearen falta oso larritzat joko da.

k) Hilerriaren funtzionamendu egokirako premiazko neurriak hartzea, aurretik konpetentzia duten udal-organoei iritzia eskatzea ezinezkoa denean. Udal organo hauei informazio, ahal den epe laburrenean eman beharko zaie.

l) Alkateak eta beste aginte jurizdikzional batzuek euren konpetentzien arabera emandako agindu bereziak betetzea.
m) Egindako ehorzketen edo desehorzketen berri zehatza ematea liburu-erregistroaren arduradunari.
n) Erregistro-liburu bat eramatea. Bertan jasoko dira : ehortziaren edo desehortziaren izena eta abizenak, hilobiratze-data, hilobiaren zenbakia eta haren barruan duen hurrenkera hizkia, eta hilerrian duen kokapena.
o) Hilerria modu egokian administratzeko beharrezkoak diren gainontzeko guztiak.

**9. artikulua**
Herritar erabiltzaileei dagokie :

a) Hilerrian hilobiratze duina izateko eskubidea, sexu, arraza, ideologia, erlijio edo beste zernahi baldintza edo zirkunstantzia pertsonal edo sozialagatik diskriminaziorik jaso gabe.
b) Bakoitzak bere panteoia, nitxoa, kolunbarioa, etab. adierazten diren garbitasun, kontserbazio, apaindura eta estetika baldintzatan mantentzea. Hilerriko estetikarekin bat ez datorren elementurik ez jartzea eta ondorioz, hilarriek, itxigailuek eta gainontzeko apaindurek, gaur egungo irizpide estetikoak edo Udalak etorkizunean finka ditzakeenak mantendu beharko dituzte.

c) Zerbitzua emateagatik Ordenantza Fiskal aplikagarrian ezartzen diren eskubideak eta tasak ordaintzea.
d) Udalak edo eskuduntzarik duen beste edozein administrazio edo erakundek eman dituen xedapen guztiak bete eta betearaztea.

j) Encargarse de la destrucción de ropas, utensilios y enseres procedentes de la evacuación y limpieza de nichos, panteones y columbarios, no permitiendo que en el caso de exhumación de cadáveres o restos debidamente autorizados, sean recogidos por otra persona los objetos que hubiese en el féretro; siendo considerado falta gravísima del sepulturero o enterrador la desaparición de restos, vestiduras, féretros u objetos que hubiese en los enterramientos del cementerio.
k) Adoptar las medidas necesarias para el buen funcionamiento del cementerio, dando cuenta de las mismas a los órganos municipales competentes en el más breve plazo posible en los casos en que no se haya podido solicitar su dictamen con antelación.
l) Ejecutar las instrucciones especiales emanadas del Alcalde y de otras autoridades jurisdiccionales, dentro de sus respectivas competencias.
m) Dar cuenta puntualmente al encargado del libro – registro de las inhumaciones o exhumaciones realizadas.
n) Llevar un libro de registro con indicación del nombre y apellidos del inhumado o exhumado, fecha del sepelio, número de sepultura y letra de orden dentro de la misma, así como su ubicación en el cementerio.
o) Todas aquellas que sean necesarias para la correcta administración del cementerio.

**Artículo 9**
Corresponde a los particulares:

a) El derecho a una inhumación digna en el cementerio, sin discriminación por sexo, raza, ideología, religión o cualquier otra condición o circunstancia personal o social.
b) Mantener el panteón, nicho, columbario, etc. que le corresponda en las condiciones de higiene, conservación, ornato y estética que se señalen. No incorporar ningún elemento que pueda romper con la estética actual del cementerio, por lo que las lápidas, losas, cierres y demás elementos ornamentales deberán seguir los criterios estéticos de los existentes y las que pueda dictar el Ayuntamiento en el futuro.
c) Abonar los derechos o tasas por la prestación de los distintos servicios que se señalen en la Ordenanza Fiscal aplicable.
d) Respetar y cumplir cuantas disposiciones se dicten por el Ayuntamiento o cualesquiera otra administración o entidad competente.

**10. artikulua**
Sinesmen desberdineko edo legez osatutako erakundeen ordezkariek, hilobiratzeak, bidezkoen jotzen duten eran antolatu ahal izango dituzte, beti ere, hildakoei eta araudi honi zor zaien begirunea kontuan edukiz.

**Artículo 10**
Los representantes de distintas confesiones religiosas o de entidades legalmente reconocidas, podrán disponer lo que crean más conveniente para la celebración de los entierros, de acuerdo con las normas aplicables a cada uno de los casos y dentro del respeto debido a los difuntos y a la presente ordenanza.

**11. artikulua**
Udala ez da arduratzen partikularrek bultzaturiko obretan edo panteoien eraikuntzan nahiz berritze lanetan langileek eta peoiek jasan lezaketen istripuen, kalteen edo hondamenen aurrean, nahiz eta horretarako baimena aldez aurretik luzatu duen. Era berean, Udala ez da arduratzen, edozein arrazoigatik dela-eta, bisitariek edo hileta-erabileraren titularren ondasunek jasan lezaketen istripuen edo kalteen aurrean.

**Artículo 11**
El Ayuntamiento queda exento de responsabilidad por los accidentes, daños o perjuicios que puedan sufrir los encargados y operarios de los trabajos de construcción o reforma de los panteones o de otras obras encomendadas por particulares, aunque haya sido autorizada su ejecución, y de los que puedan experimentar por cualesquiera causa las personas visitantes y los bienes de los titulares del uso funerario.

**12. artikulua**
Villabonako Udalak ahalmena du hilerrian erabili ahal izango diren hilarri, panteoi itxigailu, hizki, eta abarren ereduei dagozkien arau zehatzak finkatzeko.

**Artículo 12**
El Ayuntamiento de Villabona se reserva la facultad de desarrollar en el futuro normas concretas que establezcan los modelos de losas, cierres de panteón, lápidas, letras, etc. que se puedan utilizar en el cementerio.

## II. KAPITULUA
## KUDEAKETA

**13. artikulua**
Villabonako Udalak hilerrian ordena gorde dadin zainduko du, baita hark duen eginkizunari zor zaion begirunea egon dadin, horretarako ondorengo arauak betearaziko dituelarik :

1. Bisitariek, uneoro, esparruarekiko behar bezalako begirunez jokatuko dute, eta, nolanahi ere, Udalak bere eskura dituen legezko neurriak hartu ahal izango ditu arau hau betetzen ez dutenak esparrutik kanpo jar ditzaten agintzeko.
2. Hilerriko esparruaren zaintza orokorra egingo du Udalak, baina ez Udalak ezta bere menpeko organoek ere, ez dute beren gain hartuko hilobietan edo hilerrian ipintzen diren gauzetan beste inork egindako kalteen erantzukizunik, indarreko legerian aurreikusitakoetan izan ezik. Era berean, hilerriko langileek ez dute bere gain hartuko herritarrek jarritako hilarrietan, nitxo bat, panteoi bat edo kolunbario bat zabaltzeko garaian egindako hausturen erantzukizunik.

## CAPITULO II
## GESTIÓN

**Artículo 13**
El Ayuntamiento de Villabona velará por el mantenimiento del orden en el recinto del cementerio, así como por la exigencia del respeto adecuado a la función del mismo, mediante el cumplimiento de las siguientes normas:

1. Los visitantes se comportarán en todo momento con el respeto adecuado al recinto, pudiendo, en todo caso, adoptar el Ayuntamiento las medidas legales a su alcance para ordenar el desalojo de quienes incumplieran esta norma.
2. El Ayuntamiento realizará la vigilancia general del recinto del cementerio, si bien, ni él ni ninguno de sus órganos asumirá responsabilidad alguna respecto a robos y desperfectos que pudieran cometerse por terceros en las unidades de enterramiento y objetos que se coloquen en el cementerio, fuera de los casos previstos en la legislación vigente. Así mismo el personal del cementerio no se hará responsable de la ruptura de las lápidas colocadas por los particulares, en el momento de abrir un nicho, panteón o un columbario.

3. Hilerriaren barrutian eta haren inguruan, debekaturik dago salmenta ibiltaria eta nolanahiko propaganda egitea.
4. Hilobien argazki, erreportaia, marrazki edo irudiak egin ahal izateko, baita gisa honetako esparruetan egin ohi diren jardueretatik kanpo gelditzen diren ekintzak ospatu ahal izateko, aurretik Udalaren baimen berezia behar da, nolanahi ere babesturik gelditu beharko delarik gainerako erabiltzaileei zor zaien begirunea.

5. Hilobietako obrek eta hileta-inskripzioek bat etorri beharko dute barrutiak duen egitekoari zor zaion begirunearekin. Nolanahi ere, herritarrek nitxoetan eta kolunbarioetan hilarriak jartzeko eta hilobietan eta panteoietan plakak jartzeko, Udalak horri buruz ematen dituen instrukzioak bete beharko dituzte, hilobi eskubidearen kontzesioa duenaren konturakoa izango delarik horiek zaindu eta iraunaraztea.

6. Galarazita dago, Udalaren baimen berezia izan ezean, jendearen sarrera hilotzen gordelekura eta hezurtegi orokorrera, baita hutsik hilerriko langileentzat diren guneetara.

7. Debekaturik dago hilerri barruan piezak edo marmolak zerratzea, desegitea edo gisa horretako lanak.
   Oso kasu berezietan beharrezko gertatzen denean hori egitea, baimena eskatu beharko zaio udalari, hark lan horiek zein tokitan burutuko diren zehaztuko duelarik.

**14. artikulua**

1. Udalak, burutzen diren jarduera eta zerbitzuen egitasmotze eta kontrolerako bitarteko gisa, hilerriaren administrazio egokirako beharrezko diren liburu edo erregistroak osatuko ditu.

2. Eskaera eta kexuak Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, eta bertatik organo eskudunarengana bidaliko dira, jakinaren gainean egon eta izapidetu ditzan.

**15. artikulua**

Zerbitzuaren beharren arabera Udalak ezartzen duen ordutegian egongo da irekita hilerria jendearentzat. Ordutegia hilerriaren sarreran jarritako kartel baten bitartez jakinaraziko da. Hilerrian ezin da sartu erabakitako ordutegitik kanpo, premiazkoak diren kasuetan izan ezik. Kasu horietan hilerriko langilegoa aurrean egongo da.

3. Se prohíbe la venta ambulante y la realización de cualquier tipo de propaganda en las inmediaciones y en el interior del recinto del cementerio.
4. La realización de fotografías, reportajes, dibujos y/o pinturas de las unidades de enterramiento, así como la celebración de actos que no correspondan a la actividad ordinaria de este tipo de recinto, quedarán sujetas a la previa autorización especial del Ayuntamiento, salvaguardando, en todo caso, el respeto debido al resto de los usuarios.
5. Las obras e inscripciones funerarias deberán estar en consonancia con el respeto debido a la función del recinto. En todo caso, la colocación de lápidas en los nichos y columbarios, y placas en las sepulturas y panteones por parte de los particulares, deberá ajustarse a las instrucciones que al respecto dicte el Ayuntamiento, y su realización requerirá la previa autorización del Ayuntamiento, siendo de cuenta del concesionario su mantenimiento y conservación.
6. Queda prohibido, salvo autorización especial del Ayuntamiento, el acceso del público al depósito de cadáveres y al osario general, así como a las instalaciones reservadas al personal del cementerio.
7. Queda prohibido realizar dentro del cementerio operaciones de serrar piezas o mármoles, desguace u otras similares.
   Cuando por circunstancias especiales se precise hacerlo, se deberá solicitar la autorización del órgano municipal competente que designara el lugar concreto donde se tendrán que hacer estos trabajos.

**Artículo 14**

1. El Ayuntamiento mantendrá, como instrumento de planeamiento y control de las actividades y servicios llevados a cabo, los libros o registros necesarios para la buena administración del cementerio.
2. Las peticiones y quejas se presentarán en el Registro General del Ayuntamiento, desde donde serán trasladadas al órgano competente para su conocimiento y tramitación.

**Artículo 15**

El cementerio permanecerá abierto al público durante el horario que establezca el Ayuntamiento de acuerdo con las necesidades del servicio. Dicho horario se hará constar mediante la colocación del oportuno cartel en el acceso de entrada al mismo. Queda totalmente prohibida la entrada al cementerio fuera de los horarios establecidos, exceptuando

rau honen kontra doazenei atentzioa deituko zaie eta kanporatuak izango dira. Kasuen arabera, horien kontrako bide administratibo edo judiziala hartuko da.
Gertaera bereziak direla eta Udalak ordutegi ezberdina ezarri ahal izango du, baina aipatutako ospakizunetarako bakarrik izango da.

**16. artikulua**
Bakarkako nitxo handien, gorpuzkinentzako nitxo txikien, kolunbarioen eta panteoien, eta hala balegokio, lurpeko ehorzketen Errolda-Liburu bat egongo da, bertan jasoko direlarik hilobiratzeak, desehorzketak eta lekualdatzeak.
Beharrezko neurriak hartuko dira datuen segurtasuna bermatu ez ezik, horiek aldatzea, galtzea edo baimenik gabe tratatzea zein eskuratzea galarazteko.

**17. artikulua**
Errolda-liburuan ondorengo datuak jaso beharko dira:

a) Hilobiak erabiltzeko eskubidearen titularraren izen-abizenak eta gainontzeko datuak.
b) Adjudikazio-data, Udalak emandako eskubide mota eta horren bukaera.
c) Hilobiratzea egiten den nitxo, kolunbario, lur-hobi edo panteoiaren identifikazioa eta dagokion zenbakia.
d) Hilobia Udalaren eskuetan geratzen den data, kontzesioa bukatu delako edo beste arrazoi batzuk direlako.

Hilobiratzeak
e) Hilobiratuta dauden pertsonen izen-abizenak eta bestelako datuak. Era berean, hilobiratzeak egin ziren egunen datak ere agertu beharko dira.
f) Helbidea edo jatorria eta erreferentziako pertsonaren datuak.
g) Dagokion ziurtagirian jasotzen den heriotzaren data.
h) Hilobiratzea baimentzen duen auzitegiaren izena, dagokionean.

Desehorzketak :
i) Desehortzi edo eta tokiz aldatu behar den hildakoaren izen-abizenak.

casos urgentes y siempre con la presencia del personal encargado.
Los contraventores serán reprendidos y expulsados, sin prejuicio de proceder contra los mismos por la vía administrativa o judicial, según los casos.
En los casos especiales motivados por cualquier solemnidad o acontecimiento, podrá señalar el Ayuntamiento horario distinto que no tendrá más extensión que la del día en que se realicen dichos actos.

**Artículo 16**
Existirá un Libro de Registro de nichos grandes individuales, nichos pequeños para restos, columbarios y panteones y, en su caso, fosa de tierra, en el que se anotarán las inhumaciones, exhumaciones y traslados.
Se adoptarán las medidas necesarias que garanticen la seguridad de los datos y eviten su alteración, pérdida y tratamiento o acceso no autorizado.

**Artículo 17**
En el Libro de Registro se harán constar las siguientes particularidades:

a) Nombre, apellidos y demás circunstancias personales del titular del derecho funerario
b) Fecha de adjudicación y clase de derecho concedido por el Ayuntamiento, así como la finalización del mismo.
c) Identificación del nicho, columbario, fosa de tierra, en su caso, o panteón, con indicación de su exacta ubicación y el número de orden que le corresponda.
d) Fecha en que por caducidad de la concesión o por cualquier otra causa, quede a libre disposición del Ayuntamiento la sepultura.

Inhumaciones:
e) Nombre, apellidos y demás circunstancias de las personas inhumadas en la sepultura que corresponda, haciendo constar las fechas de las inhumaciones que se realicen.
f) Domicilio o lugar de procedencia y familiar o persona de referencia.
g) Fecha de defunción, según conste en el correspondiente certificado.
h) Juzgado que autorice la inhumación cuando corresponda.

Exhumaciones:
i) Nombre, apellidos y demás circunstancias personales de la persona a la que corresponda el cadáver o los restos que van a ser objeto de la exhumación o traslado.

j) Heriotzaren data.
k) Gorpua berriz hilobiratu behar den tokiaren identifikazioa.
l) Tokiz aldatzea edo desehorztea baimentzen duen agintariaren izena eta baimenaren data.

## III. KAIPUTULUA HILOBIRATZEAK, DESEHORZKETAK ETA LEKUALDATZEAK

**18. artikulua**
Hildakoak edo gorpuzkinak hilobiratzeak, desehorzteak eta lekualdatzeak, gorpuen osasun zaingoari buruz aldi bakoitzean dauden arau eta lege xedapenek ezarritakoaren arabera egingo dira.

Hilobiratze, desehorzketa eta eskualdatze guztiak Udalaren baimenarekin egingo dira, eta beharrezkoa denean, dagokien osasun agintari eta agintari judizialen baimenarekin.
Hildakoak edo gorpuzkinak hilobitik atera daitezke hilerrian bertan lekualdatu eta berrilobiratzeko edo beste hilerri batetara eramateko.

**19. artikulua**
Udalaren baimena lortzeko ondoko agiriak aurkeztu beharko dira :

1. Hilobiratzea denean :
   a) Normalizatutako eskaera-orria betetzea.
   b) Dagokion Epaitegiak emandako hilobiratzeko baimena.
   c) Gorpua panteoi batean lurperatzeko, hilobiak erabiltzeko eskubidearen kontzesioaren titulua. Hildakoa eskubide-titularra ez denean, honen edo bere oinordekoen baimena aurkeztu beharko da.
   d) Gorpua beste herri batetik lekualdatu bada, Osakidetzaren baimena.
   e) Heriotza naturala ez denean, Udal-epailearen edo eskuduna denaren baimena.
   f) Dagokion Ordenantza Fiskalean ezarrita dauden tasak ordaindu izanaren ordainagiria.
2. Hilobitik ateratzea denean :
   a) Normalizatutako eskaera-orria betetzea.
   b) Osakidetzaren baimena.

j) Fecha de fallecimiento.
k) Lugar o sepultura a la que se traslada el cadáver para nueva inhumación.
l) Autoridad que autoriza el traslado o exhumación y fecha de la autorización.

## CAPITULO III. INHUMACIONES, EXHUMACIONES Y TRASLADOS

**Artículo 18**
Las inhumaciones, exhumaciones y traslados de cadáveres o restos se regirán por las normas y disposiciones legales y sanitarias vigentes en cada momento sobre policía sanitaria mortuoria, y por lo establecido en el presente reglamento.
Toda inhumación, exhumación o traslado se realizará con la autorización del Ayuntamiento y la de las autoridades sanitarias y judiciales correspondientes en los casos en que sea necesario.
La exhumación de cadáveres o restos puede efectuarse para su traslado y reinhumación dentro del mismo cementerio o para su conducción a otro distinto.

**Artículo 19**
Para la obtención de la autorización del Ayuntamiento, será necesaria la presentación de la siguiente documentación:

1. En el caso de inhumaciones:
   a) Cumplimentación del impreso de solicitud normalizado.
   b) Licencia para dar sepultura expedida por el Juzgado correspondiente.
   c) Para efectuar la inhumación de un cadáver en panteón, título de la concesión de sepultura. En el caso de que el cadáver no sea el del propio titular del derecho, habrá de presentarse autorización del mismo o de sus herederos.
   d) Si el cadáver es trasladado desde otro municipio, el oportuno permiso de Osakidetza.
   e) En los casos de muerte no natural autorización del Juez municipal o del que fuera competente.
   f) Recibo de haber satisfecho los derechos establecidos en la correspondiente Ordenanza Fiscal.
2. En el caso de las exhumaciones:
   a) Cumplimentación del impreso de solicitud normalizado.
   b) Permiso de Osakidetza.

3. Lekualdatzea hilerri barruan denean :

   a) Normalizatutako eskaera-orria betetzea.

   b) Gorpuzkinak panteoi batetan lurperatzeko, hilobiak erabiltzeko eskubidearen kontzesioaren titulua. Hildakoa eskubide-titularra ez denean, honen edo bere oinordekoen baimena aurkeztu beharko da.

   c) Dagokion Ordenantza Fiskalean ezarrita dauden tasak ordaindu izanaren ordainagiria.

3. En el caso de traslado dentro del mismo cementerio:
   a) Cumplimentación del impreso de solicitud normalizado.
   b) Para efectuar la reinhumación de los restos en panteón, título de la concesión de sepultura. En el caso de que los restos no sean los del propio titular del derecho, habrá de presentarse autorización del mismo o de sus herederos.
   c) Recibo de haber satisfecho los derechos establecidos en la correspondiente Ordenanza Fiscal.

**20. artikulua**
Hilobiratzeak indarrean dauden lege xedapenen arabera egingo dira. Nahitaezko baldintza da heriotza Erregistro Zibilean inskribatzea, hil izanaren zalantzarik gabeko adierazpenak daudela ziurtatzen duen medikuaren agiriarekin. Heriotz ziurtagiriarekin, Udalak horretarako jarritako dependentzietan kreditatuko da, eta bertan eskuratuko da lurperatzeko baimena. Lurperatzea ez da egingo heriotzetik hogeita lau ordu igaro arte.

**Artículo 20**
Las inhumaciones se practicarán según las disposiciones legales vigentes. Es requisito indispensable la inscripción del fallecimiento en el Registro Civil, con certificación médica de la existencia de señales inequívocas de muerte. Con el certificado de defunción se acreditará en las dependencias designadas a tal efecto por el Ayuntamiento, donde se expedirá licencia de enterramiento. El enterramiento no tendrá lugar hasta transcurridas veinticuatro horas desde el momento de la muerte.

**21. artikulua**
Udalak, zerbitzuaren funtzionamendu hobeagoa lortzearren zehaztuko du hilobiratzeko ordutegia. Hilotza aurkezten duenak, zerbitzuaren jarduera erraztearren, ehorzleari galdetu beharko dio hilobiratzeko ordu zehatza zein izango den.

**Artículo 21**
El Ayuntamiento fijará las horas de enterramiento atendiendo al mejor funcionamiento del servicio. Quien presente el cadáver deberá consultar al sepulturero o enterrador la hora concreta del enterramiento con el fin de facilitar el desarrollo normal del servicio.

**22. artikulua**
Aipatutako orduetatik kanpo ehorztea posible izango da zerraldoak behar diren baldintzak ez baditu betetzen, edo gorpuaren egoerak horrela agintzen badu, beti ere ehorzketarako legezko epea betetzen badu.

**Artículo 22**
No obstante se podrán realizar inhumaciones fuera del horario cuando la caja mortuoria no reúna las debidas condiciones o el estado del cadáver así lo aconseje, siempre que cumpla plazo legal para su enterramiento.

**23. artikulua**
Gorpua aurkezten duen hileta-enpresa edo pertsonak legezko edo araubidezko xedapenek exijitutako agiriak ekarri beharko ditu.

**Artículo 23**
La empresa funeraria o persona que presente el cadáver, deberá entregar la documentación exigida por las disposiciones legales o reglamentarias.

**24. artikulua**
Hilobiratzeak ehorzle-arduradunaren aurrean egingo dira beti.

**Artículo 24**
Las inhumaciones se realizarán siempre en presencia del enterrador encargado.

**25. artikulua**
Hilobiratzeak nitxo bakoitzean edo kontzesio erregimeneko panteoietako balda bakoitzean gorpu baka-

**Artículo 25**
Las inhumaciones se efectuarán introduciendo un solo cadáver con su féretro en cada uno de los

rra bere hilkutxarekin sartuz egingo dira. Indarreko legedian aurreikusitako salbuespenezko kasutan, hilotz bat baino gehiago hilobiratu ahal izango da.

**26. artikulua**
Udalak baimenduriko edozein motatako hilobiratze unitateetan ehortz daitezke hilotzak.

Gorpua ukitzen duten objektuak, hala nola, maindireak, burukoak, hil-oihalak, gorputzarekin batera hilobiratu edo kaltzinazio edo errausketa bidez desegingo dira.

**27. artikulua**
Nitxo, hilobi, kripta edo bestelako ehorzketa monumentuetan irekidurak modu hermetikoan itxiko dira likidoak iragaz ez daitezen eta jariorik izan ez dadin.

Nitxo eta kolunbarioetan hobiratuz gero, ehorzketa eskubidearen jabeek behin betiko idazpena duen hilarria jar dezakete bi hilabeteren buruan.

Barruko materia organikoa desintegratu ondorengo aldaketei bide emateko, halako iragaztezintasuna dakarten materialez egingo dira nitxoak, hilobiak, kriptak eta gainerako hileta monumentuak.

**28. artikulua**
Partikularrek, hilarriak eta plakak jartzeko Udalaren baimena behar dute, eta eskubidea onarturik duen pertsonaren ardura izango da, horiek mantentzea eta kontserbatzea.

**29. artikulua**
Beste hilotz edo gorpuzkin batzuk dauzkan panteoi batean ehortzi behar izanez gero, ekitaldi berean gorpuzkinak murrizteko aukera egongo da. Udalari egindako jakinarazpena bidez titularrak berariaz eskaturik baino ez da egingo murrizketa hori ehorzketa baino lehenago, eta titularraren edo hura ordezkatzen duen pertsonaren aurrean gauzatuko da, beti ere zerbitzuaren egoerak hartarako bidea emanez gero.

**30. artikulua**
Panteoi batean hurrenez hurren zenbat gorpu ehortz daitekeen zehazterakoan, hilobiaren edukiera bea izango da mugakizun bakarra, salbu eta ehorzketa eskubidearen titularrak fede emandako moduan mugatzen badu hobian lurpera daitezkeen lagunen kopurua edo horien zerrenda itxia edo mugatzailea adierazita.

nichos o baldas de panteones en régimen de concesión. En los casos excepcionales previstos en la legislación vigente, podrá inhumarse más de un cadáver.

**Artículo 26**
Los cadáveres podrán ser inhumados en cualquier clase de unidad de enterramiento autorizada por el Ayuntamiento.
Todos los objetos que estén en contacto con el cadáver, tales como sábanas, almohadas, sudarios, etc., serán enterrados con el cuerpo o destruidos por calcinación o incineración.

**Artículo 27**
Los nichos, panteones u otros monumentos funerarios, estarán provistos de un cierre hermético de sus aberturas que impida emanaciones y filtraciones líquidas.
En la inhumación en nichos y columbarios, los titulares del derecho funerario podrán colocar la lápida definitiva con la inscripción en el plazo de dos meses.
La construcción de nichos, panteones y demás monumentos funerarios se realizará con materiales que aseguren una impermeabilidad relativa para permitir los cambios necesarios a la ulterior desintegración de la materia orgánica contenida.

**Artículo 28**
La colocación de lápidas o placas por los particulares, requerirán la previa autorización del Ayuntamiento, siendo por cuenta del concesionario su adecuado mantenimiento y conservación.

**Artículo 29**
Cuando tenga lugar la inhumación en un panteón que contenga otros cadáveres o restos, podrá efectuarse en el mismo acto la reducción de restos. Sólo a petición expresa del titular, mediante notificación por escrito al Ayuntamiento, y siempre que las disponibilidades del servicio lo permitan, tendrá lugar esta operación antes del acto del entierro, que podrá ser presenciada por el titular o persona a quien autorice.

**Artículo 30**
El número de inhumaciones sucesivas en cada panteón no estará limitado por otra causa que la de su capacidad, salvo que el titular del derecho funerario lo limite fehacientemente, estableciendo el número o relación cerrada o excluyente de personas cuyos cadáveres puedan ser inhumados.

Ez da ehorzteko baimenik emango hilobiratze unitateari aitortutako ehorzketa-eskubidea amaitzeko sei urte baino gutxiago falta izanez gero.

No se autorizarán inhumaciones en las unidades de enterramiento cuando reste un plazo inferior a seis años para la finalización del plazo por el que fue otorgado el derecho funerario.

**31. artikulua**
Gorpuak eta gorpuzkinak hilobitik atera daitezke hilerrian bertan lekualdatu eta berrilobiratzeko edo beste hilerri batetara eramateko. Bi kasuetan arauzko baimena beharko da eta garai bakoitzean indarrean dagoen Hildakoen Osasun Zaingoaren gainontzeko arauak beteko dira, norberaren segurtasunerako neurri guztiak hartuz.

**Artículo 31**
La exhumación de cadáveres y de restos cadavéricos puede efectuarse para su traslado y reinhumación dentro del mismo Cementerio o para su conducción a otro distinto. En ambos casos se precisará de la reglamentaria autorización y se dará cumplimiento a las demás normas de Policía Sanitaria Mortuoria vigentes en cada momento, empleando toda clase de precauciones para la seguridad personal.

**32. artikulua**
Hilotza edo gorpuzkinak beste hilerri batetara eramateko edo hilerri bereko beste hilobi batetan sartzeko ateratzeko, hilobi horren titularrak eskaera egin beharko du, eta hala badagokio, hildakoaren familiak, dagokion osasun-baimena erantsiz, eta hala balitz udalarena ere.

Nolanahi ere, hilotzak edo gorpuzkinak Udalak horrela erabakitzen duenean aterako dira, beti ere hilobiratu zirenetik hamar urte igaro badira.

Aurreko atalean adierazitako gorpu-ateratze horiek pixkanaka egingo dira, hilobiratze berriak egin ahal izateko sortzen diren beharren arabera, eta hilobien zenbaki koerlatiboari eta horien antzinatasunari jarraiki. Edonola ere familiartekoei jakinaraziko zaie beraien nahia azal dezaten.

Ezingo dira inolaz ere gorpuzkinak erreklamatu hezurtegian utzi ondoren.

**Artículo 32**
La exhumación de un cadáver o de los restos, para su inhumación en otro cementerio o en otra sepultura del mismo cementerio, precisará la solicitud del titular de la sepultura de que se trate y en su caso, de la familia del difunto, acompañada de la correspondiente autorización sanitaria y en su caso municipal.
En cualquier caso, los cadáveres o restos se exhumarán cuando el Ayuntamiento así lo acuerde, siempre y cuando hayan transcurrido diez años desde su inhumación.
Las exhumaciones contempladas en el apartado anterior se efectuarán paulatinamente en la medida de las necesidades surgidas frente a nuevas inhumaciones, atendiendo al número correlativo de las sepulturas y a su antigüedad. En todo caso se notificará a los familiares a fin de que expongan sus deseos.
En ningún caso se podrán reclamar los restos una vez depositados en el osario común.

**33. artikulua**
Hilotza edo gorpuzkinak hilerri bereko hilobi batetik bestera lekuz aldatzeak bi eskubideen titularren adostasuna beharko du, baita finkaturiko epeak betetzea eta osasun arduradun eskuduna han izatea ere.

**Artículo 33**
El traslado de un cadáver o unos restos de una sepultura a otra del cementerio, exigirá el consentimiento por escrito de los titulares de ambos derechos, el transcurso de los plazos establecidos, y la presencia del titular sanitario competente.

## IV. KAPITULUA
## HILOBI ESKUBIDEAK

## CAPÍTULO IV
## DERECHOS FUNERARIOS

**34. artikulua**
Ehorzketa eskubideak jabeari ahalmena ematen dio hilerrian izendaturiko hilobiratze unitatea edukitzeko eta erabiltzeko, tituluan adierazitako epean. Barne hartzen ditu lurraren erabilera eta gorpuak edo giza gorpuzkinak hilobiratzeko, zaintzeko edo gordetzeko

**Artículo 34**
El derecho funerario otorga a su titular la facultad de usar y disponer en el cementerio de la unidad de enterramiento asignada y por el plazo señalado en el correspondiente título. Comprende el uso del terreno y el de las construcciones realizadas, para inhuma-

jasotako eraikinak berak, lurra beste edozertarako erabiltzerik izango ez dela. Udalak emango du, berea delarik jabetza-titularitatea.

Ehorzketa eskubidea honako hauek direla-eta eratu daiteke :
- Dagoeneko eraikitako panteoiak.
- Bakarkako nitxo handiak.
- Gorpuzkinentzako nitxo txikiak.
- Hezurtegia.
- Erraustegiak.

Ehorzketa-eskubidea gorpuak hilobiratzeko zein gorpuzkinak edo errautsak sartzeko eman daiteke.

Nolanahi ere, ehorzketa-eskubideak sortu, hedatu, eskualdatu, luzatu eta amaitzearekin zerikusia duten ekintza guztietan kontuan izan beharko da unean-unean indarrean den araubide teknikoa eta sanitarioa.

**35. artikulua**
Hilobiratze unitateak (panteoiak, nitxoak, hezurtegiak eta erraustegiak) edo hilobiak erabiltzeko hilobi eskubidea sortzen da hilobiratze unitate bakoitzerako titulua ematerakoan eta jakinarazpenean hartarako ezarritako epean diru kopurua ordaintzerakoan.

Eskubidearen titularrei eta onuradunei dagokie beraiei buruzko datuen eta administrazio-artxibokoaren edukia gaurkotua mantentzea, gertatzen diren intzidentzien berri emanaz administrazioari. Udala ez da jakinarazpen horien ezaren ondorioz interesatuei gerta dakieken kalteen arduradun izango.

**36. artikulua**
Ez zaio hilobirik ukatuko hilobiratzeko aurkezten den ezein gorpuri, legezko tramiteak jarraitu baditu eta nahitaez ondoren adieraziko direnetatik gutxienez baldintzatariko bat betetzen badu :

a) Villabonakoa izatea.
b) Villabona udalerrian bizitzea eta erroldatuta egotea gutxienez urtebete lehenagotik.

c) a) edota b) ataletan deskribatutako egoeraren batean dauden pertsonen aurretikoak edo ondorengoak izatea lehen graduan (gurasoak edota seme-alabak).
d) Eskatutako bizitza-antzinatasunaren baldintza betetzen ez badu ere Villabona udalerrian bizi-

ción, custodia y depósito en su interior de cadáveres y restos humanos, sin que pueda darse otro destino al terreno. Será otorgada por el Ayuntamiento, quien ostenta la titularidad dominical.

El derecho funerario podrá recaer sobre:
- Panteones ya construidos.
- Nichos grandes individuales.
- Nichos pequeños para restos.
- Osario.
- Columbarios.

El derecho funerario podrá otorgarse para el enterramiento de cadáveres o para la conservación de restos cadavéricos o cenizas.
En todo caso, en todas las actuaciones relativas al nacimiento, desarrollo, transmisión, prórroga y extinción de los derechos funerarios se tendrán en cuenta la normativa técnica sanitaria vigente en cada momento.

**Artículo 35**
El derecho funerario al uso de las unidades de enterramiento o sepulturas, como panteones, nichos, osarios y columbarios nace mediante su otorgamiento a través de un título para cada unidad de enterramiento y el pago de la cantidad que se señale en la notificación en el plazo establecido para ello.
Incumbe a los titulares y beneficiarios del derecho mantener actualizado el contenido de los datos a ellos referidos y archivos administrativos, poniendo en conocimiento de la Administración las incidencias que se produzcan. El Ayuntamiento no será responsable de los perjuicios que puedan ocasionarse a los interesados por efecto de la falta de tales comunicaciones.

**Artículo 36**
No se negará sepultura a ningún cadáver que sea presentado para su inhumación, siempre que hayan sido cumplidos los trámites legales y se cumpla inexcusablemente al menos uno de los siguientes requisitos:

a) Ser natural de Villabona.
b) Se trate de persona residente y empadronada en el municipio de Villabona, con una antigüedad mínima de un año de residencia en el municipio.
c) Se trate de ascendientes y descendientes directos en primer grado (padres o hijos) de personas que se encuentren en alguna de las situaciones descritas en a) o en b).
d) Se trate de persona que si bien no cumple con la antigüedad de residencia requerida, se constate

tzeko borondatea Udalaren iritziz argi eta garbi azaldu duela egiaztatzea.

e) Pertsona Villabonan hil denean.

Udalak baldintza horiek betetzen ez dituzten gorpuen hilobiratzea onar dezake, zerbitzuaren gorabeherak eta beharrizanak kontuan hartuz.

Villabona udalerrian hildako pertsona behartsuak doako hilobiratze-eskubidea izango dute.

**37. artikulua**
Ehorzketa eskubideak udal jabari publikoaren ondasunak nola erabili arautzeko xedapenekin bat emango dira. Hilobiratze unitateen kantitatea eskabideena baino handiagoa izan ezkero, hileta eskubideak zuzenean izendatuko zaizkie eskatzaileei. Bestela, erabilgarri diren hilobiratze unitateak enkante bidez esleituko dira.

**38. artikulua**
Emakidetan eraikitakoak salbuespenik gabe Udalaren jabetza bihurtuko dira.

**39. artikulua**
Udal hilerriko hilobiratze-unitate guztiak joko dira salerosi ezinezko ondasuntzat. Beraz, ezingo dira inolako salerosketaren gai izan, ordenantza honetan xedaturiko eskualdaketak eta lehenik bereganatutako eskubideak salbuespen direla, nolanahi ere den, honelakoak arautuko dira tituluetan xedatutakoez eta aplikatu behar zaizkien xedapenez.

**40. artikulua**
Hilobi baten gaineko erabilera-eskubidea, edozein dela ere hilobi mota, pertsona bakar baten izenean emango da beti.
Gaur egun pertsona edo familia bat baino gehiagoren izenean dauden hilobiak bere horretan utziko dira, titular horiek hilobia beren arteko bakar baten izenean jartzeko aukera baldin badago ere.
Titular anitz direnean, titularretariko batek ordezkatuko ditu gainerakoak Udalaren aurrean, eta hiletaeskubidetik eratorritako erabilerak baimenduko ditu pertsona berak. Udalak ordezkariaren etxebizitzaren helbidea erregistratu ahal izango du ondorio fiskaletarako, jakinarazpen ondorioetarako, eta abar. Aipatutako ordezkari hori espedientean agertzen diren titularren gehiengoak aukeratuko du. Akordiorik lortuko ez balitz, Udalak izendatuko luke zozketa baten bidez.

a criterio de la Corporación, voluntariedad clara de residir en el municipio de Villabona.

e) Haber fallecido la persona en Villabona.

El Ayuntamiento podrá acordar la inhumación de cadáveres que no cumplan estas condiciones, atendiendo a las circunstancias y necesidades del servicio.
Los indigentes fallecidos en el término municipal de Villabona tendrán derecho a enterramiento gratuito.

**Artículo 37**
El otorgamiento de los derechos funerarios se efectuará conforme a las disposiciones reguladoras de la utilización de los bienes de dominio público municipal. Si la disponibilidad de unidades de enterramiento es superior a la demanda de las mismas, los derechos funerarios se otorgarán directamente a los solicitantes. En caso contrario, se procederá a la licitación de las unidades de enterramiento disponibles.

**Artículo 38**
Las construcciones realizadas en las unidades de enterramiento revertirán siempre al Ayuntamiento.

**Artículo 39**
Todas las unidades de enterramiento existentes en el cementerio municipal se consideran bienes fuera de comercio. En consecuencia, no podrán ser objeto de transacción de ninguna clase, a excepción de las transmisiones previstas en este Reglamento y a salvo los derechos adquiridos con anterioridad, que en su caso se regirán por lo establecido en los correspondientes títulos y en las disposiciones que les sean de aplicación.

**Artículo 40**
El derecho de uso de una sepultura, cualquiera que sea su clase y objeto, se otorgará siempre a nombre de una sola persona.
Se respetarán los que existan en la actualidad a nombre de más de una persona o familia, sin perjuicio de la posibilidad de renunciar todos los titulares a favor de uno de ellos.
